Berriz ere Unamuno

Bilbon, liburu azokaren inguruan, irailaren 26tik urriaren 5era bitartean eratu zen aste kulturaleko gaietako bat "Unamuno eta euskarari" mahaiaurreko bat izan zen. Harrigarria badirudi ere, alperrik urteak igaro, zenbait ideia lehengo toki berean kokaturik aurkitzen dira, hainbeste urtean zubipetik urik igaro ezbalitz bezala. Sineskaitz zait asko ta asko oraindik ere Unamunoren aburuz nola baliatzen diren euskara deusezteko, edo abertzale eta euskaltzaleak, arrazoi beragatik Unamunogatik sortu ziren pentsamendu guziak ukatzeko. Dena dela, aspaldi gabiltza gogoetarako ahalmenak galdurik eta behar bada hemen aurkitu beharko dugu auzi honen arrazoia. Bestalde, argi dago, oso ohituak gaudela zerbaiti edo zenbaiti alde edo kontra egiteko gerturik aurkitzen garela, bere ideiaz inoiz ezer irakurri gabe, halako edo holako ideien joerak kondizionatzen gaituelako. Mahaiaurreko hartan ere ikusi zen bezala.

Mahaiaurreko hartan partaide izan nintzen. Zerbait esateko gogoak bultzatu ninduan partaidetza onartzera, eta aspaldiko ideiak oraindik orain ere bizi dabiltzalako bultzatu ziran antolatzaileak holako gaia jartzera.

Mahaikoen artetik, Martin Ugaldek agertu zuen duela hamalau urte zerk bultzatu zuen orain birargitaratua den ***Unamuno y el vascuence*** *liburua idaztera. Zenbait ideia jakineko jendek, euskara gutiesteko "La cuestión del vascuence" (1901) ahominean erabiltzen zuelako, eta Euskal Herriko seme ospetsu bategandik zetorzkigun ideiak gure hizkuntza jatorrari egiten zion kalteaz jabeturik hartu omen zuen tesi hura egiteko asmoa. Gure hizkuntzaren alde erabili diren gehiegikeriak, defentzaren eraginezkoak zirela agertu zuen. Ginera, gehiegikeriok, lehenago, beste hizkuntzek era, era batera edo bestera erabiliak zituztela.*

Nere aldetik, maiz zalatu dudan gauza ber-bera agertu nuen. Ez nahasteko Unamuno filosofoa eta filologoa. Unamunok mundu osoan irabazita duen ospea, izan ere, pentsatzaile zen aldetik irabazia zuen. Bere saioak aintzat hartzen ditut, batez ere ***Del sentimiento trágico de la vida*** *eta* ***La agonía del Cristianismo.*** *Baina horiegatik bere ospea eta nortasun itzala zuen gizona, gainerako guzian ere zekiena zela ustea izatea, astakeria da. Nere* ***Euskararen inguruan*** *eta* ***Gogoz-en*** *adierazi nuen bezala, bi gauza dira Unamuno filosofoa eta Unamuno erdarzalea. Honegatik, filosofian errespetagarri iduritzen zaidan hura ez dut maite euskararekin sartzen denean.*

Jon Juaristik ordea, Unamunoren lana zernahitarako hain ugaria izanik ere, bertatik bere argudioa hartu beharrez, Martin Ugalden liburua kritikatzen hasi zen. Garaiko politika eta arrazazaletasuna nahastuz. Bilboko garai hartako giroa bide, Unamunoren euskaraganako gorrotoa justifikatu nahi izan zuen.

Dena dela, sua piztu zen hortik eta eztabaida biziak izan ziren, mahaikook gure artean eta publikoak bere artean eta mahaikoekin. Askoren uste zintzoak eta beste askoren uste sutsuak, denak nahastu ziren han.

Alde batetik euskaltzale eta bestetik Unamuno-zale den honi bere lana tokatu zitzaion hango sua itzaltzen, Unamunoren egiazko balioak non zeuden eta bere hutsunerik handienak non. Gainera, zein batean eta zein bestean, kontradizioz beterik aurkituko dugula aditzera emanez.

Kierkegaard-en lanak hobeto ezagutzeko danez ikasteari eman zion gizona, zelan zitekean euskararen kontra jartzea. Euskara ezin zela kultur gaietara eraman, gaurko kultur berrirako erderetatik hitzak hartu beharra zuelako? Euskarak ezin zituela besteen hitzak hartu, "jerga" bihurtuko ez bazen? Garai hartan ere nola pentsa zezakean holakorik G. Humboldt gaztelerara itzultzen ibili zenak? Zeren, Humboldt-en eritziz, gure hizkuntzak bere hitz guziak galduko balitu ere, baina bere morfologia jatorra gorde, hala ere Europako hizkuntzarik zaharrena izaten jarraituko zuen usteko bai zen.

Katedratzarako konkurso hura galdu zuen Unamunok, baina egia esan, konkursu hura baino lehenagotik zeraman euskararen kontrako ar hori. Behar bezala benderatu ezin zuelako ote? Ez dakit zihur, baina azterketa sakon bat merezi luke, ia zertatikakoa zuen euskaraganako gorroto hori.

*Eboluzioaren ideiak fresko zituen. Hizkuntzak ere beren bizia zutela eta sortu, hasi eta hil egiten zirela. Berezko lege bat balitz bezala. Eta, berezkotasun horren alde irtetzen da. Baina, ber-berak, "the englis-speaking folk"****(Ob. comp.*** *VI,729) lanean penaz aitortzen du inglesaren aurrerakuntza eta gazteleraren beherapena.*

"Mi raza" idatzi zuen Unamunok maite zuen Euskal Herria, bereziki Bilbo, baina ez euskararik. Bere ikus-molde guziak Bilbotik begiraturik ziren, baina ez behar bada Euskal Herri guzia kontuan harturik, eta hor zegoen bere hutsa. Gaztelerazko klasikoekin zaleturik zegoen, eta honen alde, hizkuntzak herri bati ematen dion dohainez esaldi ederrak agertu zituen. Edozein hizkuntzari jarri ahal izatekoak, noski, eta arrazoi ber-beragatik gara gu euskaltzale. Gainera, beste huts bat, zera da, batak bestea ukatzen duela uste izatea. Euskaldunok hizkuntza zabalagoaren premian gaude, baina ez euskara uztean.

Esanak esan, berriz ere esan dezadan, Unamunorenik ezer irakurri gabe bere kontra daudenak, irakur dezatela zer defenditzen duten jakin dezaten. Baina, bestalde, Unamunoren zati bat besterik irakurtzen ez dutenek, baita ere irakur dezatela beste zatia, mundu guzian ospea hartzera eraman zuena, esistentzialismoaren filosofiaz aritu zena. Hor du bere nortasuna.

Juan SAN MARTIN

En Bilbao, con motivo de la XI Feria Nacional del Libro, se organizó una semana cultural con un extenso programa de conferencias y mesas redondas. Una de estas en torno a Unamuno y el vascuence, donde me toco intervenir.

Es increíble que aún perdure la polémica surgida por su tesis "La cuestión del vascuence"; pero es así. Tiene el apoyo del prestigio del pensador de la filosofía existencial y su peso tendremos que aguantar para rato. La cosa no es tan sencilla como algunos opinan, que todo arranca desde que perdió un concurso para ocupar una cátedra. Una manera muy simple de ver las cosas. Ese hecho más o menos anecdótico tiene poco que ver con su postura, que ya la había manifestado en fecha anterior. El eterno paradógico hasta en cuestión de lengua se contradecía. Era un enamorado de la literatura clásica del castellano, cosa muy loable. Cuando trataba de manifestar la importancia de una lengua para un pueblo, lo hacía situándose en el castellano, sin advertir que lo mismo podían servir en defensa de cualquier otra lengua, como hice ver en mi **Euskararen inguruan** y **Gogoz.**

El hombre que se puso a apren-

der el danés para comp
mejor a Kierkegaard, el h
que admira la evolución de
grades lenguas, el hombre que
apena del retroceso del cas
en México, el hombre que
dera esencial un idioma para
píritu y libertad de un pueb
hombre que ama a Bilbao y
Euskal Herria, el hombre que
dera su raza y menosprecia
gua de su pueblo, el hombre
cuando decía ser socialista
nocía la lengua de los labr
de los pescadores y de los
(aunque en este último caso
ran más que los pequeños
urbanos del País Vasco).

Su pensamiento filosófico
constante discurrir en la búsq
de la verdad absoluta, y en
caso es muy comprensible que
cuentemente fuera paradójico
en el caso del vascuence, su
contra, era fija, y su falta de
ria a la hora de valorar lo que
presentaban las lenguas para
pueblo, algo incomprensible
imperdonable falta de memoria

En los debates abiertos
blico, de aquella mesa redonda
esgrimieron argumentos de
tipo. Para unos, había un
Unamuno en el país, por
¿ateismo?; para otros por ser
ral.

Pero en este punto — m
en otros— muchos no est
acuerdo porque bilbaíno o
nimo de liberal desde
tiempos. Yo creo que sería
llos tiempos, porque hoy se
de aquellos es tanto como
reaccionario.

Llevando las polémicas
derroteros, las contradicc
propio Unamuno queda
chiquitas. Y aunque no est
acuerdo con Unamuno en
respecta al vascuence, donde
quiera le consideramos
en la materia, por otra parte
Unamuno pensador, con todas
paradojas, nos merece un
respeto.

Kilometroak 80 eta Klaveria

Tolosatik etorri berria naiz eta egun osoan nire burutik igaro diren zenbait gogoeten laburpena eman nahi nuke zutabe hauetan. Ez dut "Kilometroak 80" izan dena aipatuko. Hori beste batzuek egin dute eta lerro hauek argitaratu orduko gaurkotasuna galdu duelako alde batetik, beste erara bildu nahi nituzke gogoko "flashak". Zenbat jende ibili den, zernolako giro izan den, batutako dirua nola banatuko den... hortxe geldituko diren datuak ditugu. Hain zuzen ere, datu hoiek —zorionez— historiak errez gaindi ditzake, materialak baitira eta materia mugakorra dugu.

Gaur Tolosan bizi izan dugun giroa nolakoa izan den azaltzeko hitzak faltako zaizkit, ziur asko. Osotasunean gertatutakoaz idazteko eta, noski, ideia bat egiteko hantxe egon beharra nabaritzen dut. Noan, hala ere, aurrera! Euskaldunak bere euskalduntasunean harro sentitzeko noizean behin honelako aukerak behar dituela esango nuke nik.Daramagun eguneroko bizimodu latz bezain monotonoak gure jatorria, gure sustraiak zeintzu diren ahazterazten digu. Gure gizarte horren itsu-itsuko zerbitzari leialak izan gaitezkeen. Eta sarri ere segada berdinean erori ohi gara.

Maitasun haundiaz gugan hazten zaizkigun txepelkeria eta axolagabekeriaren arrastroak bota ahal izateko gorputz guztia astindu beharrean aurkitzen gara, goizean esnatzean loak laga dituenak jaurtikitzeko egiten dugun legez. Eta, dudarik gabe, gurea zeharo iratzarrik egon nahi duen Herria dugu. Nola edo hala zentzu guztiak nahi ditu erne gorde. Saiakerak denon bistan daude!

Euskaldun izatearen harrotasuna gozatzeko ekintza bereziak behar ditugula esan dut gorago. Eta arrazoi askorengatikako Herriaren mobilizapenak nolakoak izan ohi diren denok dakigu, ondo jakin ere. Baina, zilegi bekit eritzia ematea, ba da zio bat hoietako mobilizapen askotan ardatz bezala jokatu duena. Gure barneko zelularik izkutuenetan indar undiagoz, batzuetan bortizki, jo duena. Honela ihardun diguna gure hizkuntza, euskara, dugu, noski.

Baztertua, iraina izan den euskarak burua altxatu nahi du. Arestian Ramon Labaienek -Eusko Gobernuaren kontseilaria euskara hogei urte barru kalean euki behar dugula zioen; bestela bereak egin du! Ez dakit hogei urte hoiek nahikoak izango direnentz; baina, hauxe bai, epe honetan ezin dezakegula atsedenik har garbi dakusaket, euskararen aldeko borrokan gure indarrik preziatuenak inbertituz. Alderantziz, Euskal Herria: inoiz ez arte!

Gaur Tolosan Hego Euskal Herriko lau probintzietako berebil asko ikusi ahal izan dugu. Batzuk Iparretik ere etorriak. Guztiok helburu berdina: euskarari laguntza materiala eta izpirituala ematea. Hantxe ibili gara neska ta mutilak, gizon ta andreak, gazte ta ez hainak, zirkuitoan neke eta izerdiak hizkuntzaren osasunarengatik eskaintzen.

Gipuzkera, bizkaiera... batua izan ditugu lagun, Berazubitik irten garen unetik, eta ez gaituzie sei kilometroetan utzi. Ibildea nirekin egin duen Gasteizko lagun batek hauxe esan dit hango irudia dastatuz: "Lotsaz nago euskara ez jakiteagatik". Eta ulertu dut bere egoera, giza—jario hartan ugarte bezala ikusi behar baitzuen bere burua.

Gipuzkera, bizkaiera... batua aipatu ditut. Guztiak ulerkorrak, guztiak euskara. Euskara, nahiz eta abizen desberdina euki, bat baita, heuren burua euskalduntzat duten guztion zkuntza. Ulerterreza.

Hain errez aditzen es dudana, gaurkoa ez den moda baten jarraitzaileen joera da. Dela mende batzu sortu ei zen pentsakera hau eta -tamalezoraindik zenbait ale bitxi gelditzen zaigu bizirik, eredu gisa. Askenontan, gainera, bortxakeria gogorragoaz egiten dituzte keuren azalpenak. Beren azkena ikusiko balute bezala.

Nori nagokion?... Euskara, nahiz, euskal kulturako edozein alderdi aztertzean erdara hutsa erabiltzen dutenei, gurea menderatzen dutela ozenki jakinerazi arren. Erdaldunengandik datozkigun erasoak... entzungorrarena egin, eta kito!. Baina, nola jasan etxeko tentelkeria?. Nola, are samingarriago, ez ba dira gizabanako hauen ekintza hauek ia sekulan asmo baikorrez eraginda izaten, tendentzi desberdinetako hizki mizkiak azaltzeko baizik?. Honetaz mintzatzean, ***Klaveriaren*** *ondoko bertsoak datozkit gogora beti,* ***Ziburuko Joannes Etcheberriren "Eliçara erabiltceco liburua"*** *agertzen direnak.*

Burlatzen naiz Garibaiez, bai halaber Etchabez
Zeinak mintzatu baitire erdaraz euskaldunez.
Ezen zirenaz geroztik, euskaldunak hek biak,
Euskaraz behar zituzten egin bere historiak.
Nahi duenak uler bitza!

José Mari VELEZ DE MENDIZABAL

Ha concluído la 4a. edición dedicada a "Kilometroak", montaje extraordinario en todos los aspectos que la Federación de ikastolas de Gipuzkoa organiza con ánimo de reunir fondos con que ir paliando

los inmensos gastos con que
cuentra. Este año le ha toc
turno a la Ikastola Laskorain
losa, la cual nos ha brind
oportunidad de apreciar lo
Pueblo Vasco puede llegar
guir, si es que se esfuerza en
de participación desinteresada

Gente llegada de todas las
cias de Euzkadi Sur, inclu
norteños, con un único
ayudar moral y económica
euskera, en esa su carrera
pervivencia. Necesaria para
damos ser un Pueblo que no
güence de sí mismo, que
al mundo entero testimonio
triotismo.

Hemos visto vizcaínos,
guipuzcoanos, navarros,
bien en sus diferentes dia
utilizaban más que un
es el suyo. Y nadie se ha
cutir con ninguno sobre
niencia de utilizar uno
Mucho menos en lengua
moda, que si no nueva, se
determinados círculos
omiso de aquellos versos
ría; que traducidos dicen
de Garibay y también de
cuales han hablado sobre
en castellano. Pues siendo
los dos eran vascos,
hecho en vascuence

FERIANTES PARA AHORA

DISPONEMOS DE ALGUNAS PLAZAS EN AMARA
HASTA EL DIA 15 DE ENERO DE 1981

Contratado ya pista, carrousel, etc.
Dirigirse a los teléfonos:
943/45 43 04 y 46 52 01 - SAN SEBASTIAN

AGENCIA
ADFI

Administración de fincas
Complota asesoría jurídica y técnica
Local propio para reuniones
Teléfono 46 63 91

SE NECESITAN DISTRIBUIDORES

Importante marca de vino de Rioja necesita 3 Distribuidores para las siguientes zonas:
A. San Sebastián - Pasajes - Lezo - Oyarzun - Rentería
Hernani - Urnieta - Andoain y Usúrbil
B. Deva - Motrico y Elgoibar
C. Zona de Tolosa
Interesados dirigirse a VINOS ELOSEGUI,
teléfono: 88 09 79 (Beasain)